

3. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

- 1. ZATIA. Gaia garatu
- 2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa**

(5 minutu)

(5 minutu
azterketari
bakoitzak)

**Guztira 10 bat
minutu**

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

A

Estetikaren morroi

IDURRE ESKISABEL

Berria egunkariko kolaboratzailea



Aitortzen dut gustatzen zaizkidala takioiak. Badakizue, 1,60 eskas horretara ere iristen ez garenok behar izaten ditugu indartzaileak. Takoi sendoak izaten dira nireak, estetikoki baldar xamarrek ziurrenera. Baina moda aldizkari distiratsuetan feminitatea bor-borka dutela ageri diren orratzaren lodierako takoi amaiezin horiek ezinezkoak zaizkit: probatu izan ditudanetan mina sentitu dut berehala hankazpitik puntara, eta pausoa, dardarka.

Teresa del Valle antropologo handiak azaldu zidan bazuela hipotesi bat emakumeen askatzeak oinetakoen modarekin duen harremanaz: zenbat eta urrats handiagoak egin andrazkoek beren buruaz jabetzen, orduan eta takoi handi eta orko estuagoko zapatak jartzen direla boladan; alegia, emakumeen pauso luze, irmo eta libreak labur, zalantzi eta lotuak bihurtzeko oinetakoak. Beldurra emateko moduko metafora. Baina are eta beldurgarriagoa da egunotan iritsi zaidan albiste: gero eta ebakuntza *estetiko* ohikoagoa dela oinetako behatz txikia eraztea, hura gabe errazagoa delako takoi-orratzak jasatea, txikiagoa momentuko oinazea —luzerako kalteak, noski, ez dira aintzat hartzen—.

Nolanahi ere, klitori erazketa urrunak salatuko ditugu irmo, gure (auto)mutilazioak askatasunez ez ezik askatasunaren izenean egiten ditugu eta.

**Berria, 2012/12/07
(moldatua)**



B.S. 2015.2 A

Gaia prestatzeko:

Zer dio Idurrek?

Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

Zer deritzozu zeuk gai honi? Zerk eragiten du eder egoteko premia hori? Gizonek ere gero eta menpekotasun handiagoa dute? Zergatik? Zein dira ondorioak? Irtenbideak?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

3. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

- 1. ZATIA. **Gaia** garatu
- 2. ZATIA. Argazkiari buruzko **elkarrizketa**

(5 minutu)

(5 minutu
azterketari
bakoitzak)

**Guztira 10 bat
minutu**

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

B

Zaborra

JOSEBE ITURRIOZ

Berria egunkariako kolaboratzailea



Askotan irakurri izan dut zein larria den zaborren kontua. Izan ere, itsasoan pilatzen da, izugarritzko masa puskak sortuz. Esaten dutenez, Afrikako herrialde askok gure zaborra tonaka erosten dute, eta gure hondakinen artean aurkitzen dituzten elementu birziklatuez bizi dira. Gure talka ekologikoa kanporatzen eta ezkutatzen benetako profesionalak gara. Aurreko astean, Madrilgo unibertsitate ospetsu bateko ikerlari talde batek idatzitako artikulu bat jaso nuen. Hor, zera ondorioztatzen da: errausketa instalazioetatik gertu bizi diren pertsonak minbizia izateko probabilitate handia dute.

Niri, ondorio hori agerikoa iruditzen zitzaidan, baina, artikulu horretan, datuen saltsa itzel bati esker, ziurtatu egiten da begi bistakoa dena: pertsonak eta, oro har, gure mundua erailtzen du kutsadurak. Horregatik kezkatzen naute Gipuzkoan, Atez Ateko eztabaidan erabiltzen diren argumentu batzuk. Hain zuzen ere, estetika eta erosotasuna uztartuz sortzen diren atez atekoaren kontrako argudioez ari naiz. Hau da, «itsusia da, denek ikus dezakete zure zaborra». «Ez da eroso. Zenbat ontzi dira beharrezkoak etxean zabor guztia antolatzeko?!».

Bai, nik ere nabaritu dut. Segur aski, niretzat ere, oraingo zabor bilketa erosoagoa izango da, baina ez dakit estetikoagoa den. Bai, kostatuko zait nire zaborra antolatzea eta ordutegiak betetzea. Arauk betetzea kosta izan baitzait beti. Baina, gutxienez, onartzen dut: arazo itzela daukagu zaborren kontuarekin.

**Berria, 2013/02/05
(laburtua)**



B.S. 2015.2 B

Gaia prestatzeko:

Zer dio Josebek?

Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

Zer deritzozu zeuk gai honi? Zaborra arazo dugu? Zelan kudeatu?

Zeintzuk dira kudeaketa-eredu bakoitzaren alde onak eta txarrak?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa deialdia: **20015eko ekaina**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**